

ANDER DEUNA IKASTOLA

BATXILERGOA 2.B

Proiektuaren izena: poema bisualak

Iruleak liburuan oinarriturik, ikasleei poema bisualak egiteko proposamena egin diegu. Iruleak liburuaz gain, ordea, Euskara eta Literatura ikasgaian bigarren ebaluazioan landutako edukia ere balia zezaketen haien sormen lanak egiteko.

Jarraian, bikote batek egindako lagina doakizue:

1.- BIZITZA izeneko mimograma da eta izenburuaren arkitektura ere bihurritu dute (idazketaren kodeak bihurritu dituzte izenburuari berari efektu berria emateko). Txoriaren irudiaren barruan Iruleak liburuaren hari finak ageri dira eta, haiek, multibertso mugagabeen gizakien patuak lotzen dituztela idatzi dute. Txoriaren erreferentziaren baitan hiru moirak daude, liburuaren pertsonaia nagusiak hain zuzen ere.

2.- Iparra eta Hegoaren arteko zubiak: olerki honetan ikasleek klasean landutako gaia ekarri dute. 1960ko hamarkadan, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko zubiak ugariak izan zirela adierazi dute, besteak beste, harremanak estutu egin zirela eta lurraldetasun sentimendua areagotu egin zela.

3.- Klotos eta Atropos mimogramak: Iruleak liburuko moiren ezaugarriak dakartza; liburuaren erreferentziak beteriko poema bisuala da.

